



61. zk 2015eko martxoa

Berbarotarra

Euskahaldun egin eta izan gaitezen...

Martxoaren 23an iritsiko da Durangora Abadiñotik tipi-tapa. Montorretan egingo diogu ondo etorria 14:10ean



Herritarrak euskalduntzeko eta alfabetatzeko helburua daukan AEK-k sortu zuen Korrika 1980an. Urteak joan ahala baina, herriak bere egin duen ekimen hunkigarria izateaz gain, parte-hartze handikoa ere bada. Hori ere bazen AEKren helburua: guztiona izan dadin lortzea. Urte birrik behin etortzen zaigu, bakoitzean lelo batekin, bakoitzean mezu batekin. Lekukoa ematen diogu elkarri, leloak dioena aintzat hartu eta Korrikaren mezua transmititzen ari garelakoan. Ume eta gazteenentzako Korrika txikia, kultur ekintza ugari eta anitz, korrika birtuala eta beste hamaika apaingarri jartzen

dizkiogu, mezua ondo zabaltzeko, parte-hartzea borobiltzeko, geurea egiteko... Euskal Diasporara ere iritsi da, eta gure hizkuntzaren antzeko egoera bizi duten hainbat herrirentzat ere eredu izan da Korrika.

Aurtengo 19. edizioak euskahaldun gaitzen eskatzen digu, euskaldunak garelako ohartu gaitezen, euskaraz bizitzeko gaitasuna badugula jabetu gaitezen, eta horrela bizi gura dugula erabaki dezagun, behingoz. Erabilera guneak eten barik zabaltzen dihardu Berbaro elkarteak, sortu zenetik. Eta beti egin du bat Korrikarekin, parte-hartze aktiboa izan du eta

izango du, ondo baitakigu ezagutza, erabilera, ahalduntzea, elikatzea ezinbesteko osagarriak direla euskararen herria eraikitzeko.

19an hasiko da 19. Korrika Urepelen, eta Bilbon amaitu 29an. Durangon, aspaldi hasi ginen berotze-lanekin: Korrika batzordea, Korrika txikia eskoletan, Korrika kulturala.

Ea ba, ordurako, berbarotarrok zapatiak eta petoa prest dauzkagun. Berbaro ere, Plateruena eta Anbotorekin batera, prest izango da lekukoa hartu, eraman eta emateko.

Gora Korrika!

Euskaratik EUSera



Munduari euskaraz bizi gura dugula eta euskaraz garelako esaten diogu behin eta berriro. 26. urtea urratu berri dugu helburu horrekin, eta ozenago esan badaiteke ere, gurago dugu energia behin eta berriz esanaz ez xahutu. Egunero gara berbarotarrok EUSkaldun, EUSkaltzale, EUSkalakari... Eta orain are EUSago izango gara; izan ere, mundu digitalean ere EUS gara.

Lehen mundu bakarrarekin gutxi ez, eta orain, mundu digitala kudeatu beharra ere badugu. Bizitzan gertatzen zaiguna internet

bidez kontatzen dugu, eta hor ere euskaraz jarduten gara, zelan bestela. Euskarazko mundu digitala saretzen dabilza Euskal Herriko hainbat eragile eta norbanako, eta Berbaro ere bere alea jartzen du horretan. Horregatik, interneten izan gintezkeen gauza guztietatik .EUS izatea erabaki dugu. Hori delako gure ilusioa eta balioa. Beraz, badakizu, bazkide, hemendik aurrera, kaleran ez eze, www.berbaro.eus atarian ere ikusiko dugu elkar.

Lagunei, agurrik ez

Urte berriarekin batera, Oihane Barrutia Unzuetak, gazte arloko arduradunak, utzi egin du Barbaroko lantaldea. Duela 12 urte hezitzaile-lanetan hasi zenean, norik sinetsiko zukeen Barbarori hainbeste denbora eskainiko zionik... Ezta berak ere! Garai hartan, beste asmo batzuk zituen, eta ondorioz, bestelako ikasketak burutu zituen.

Baina, hara nolakoa den patua! Oihane Barbarora bueltan ekarri zuen, eta azkenean, zortzi urtez izan dugu gure artean. Denbora honetan guztian, asko da Barbarok eta Oihanek elka-

rri emandakoa; asko, elkarrengandik ikasitakoa; asko, batera sortu eta ondutakoa. Eta, horregatik, lantaldeko kideok parada hau aprobetxatu gura dugu, barbarotar gisa egin duen lana eskertzeko. Beraz, bihotz-bihotzez, eskerririk asko, Oihane!

Aurrerantzean ere izango dugu elkarrekin aritzeko aukera. Izan ere, bazkide moduan ez ezik, lagun moduan izango zaitugu, Durango euskalduna helburu, euskarazko aisialdi baten alde lanean. Hortaz, agurrik ez, Oihane; ondo izan eta laster arte!



Doanak datorrena dakar eta Itsaso Gangoitia Mazorriaga abadiñarra hasi da Barbaroko gazte arloan lanean.

Ezagutu dezagun Itsaso sagonago:

Ume zinela nagusitan zer izan gura zenuen?


Pirata batzuetan, sorgina besteetan, edo Olentzero, kalabaza, karramarro...

Eta orain, nagusiagotan zer izan gura duzu?

Orain, txikia izan nahi dut; putzuetan zapaburu bihurtu arte saltoka ibili, mahai azpian etxeak eraiki, hormetan marrazkiak egin...

Barbarotik mundua alda daitzkeela uste duzu?

Euskararen mundua aldatu-



ko dugu. Euskararen mundua euskalduna, morea, anitza eta askea izango da.

Has gaitzen Durango euskalduntzetik... Nondik hasi?

Batetik, nondik gatozen eta nora iritsi nahi dugun galdetu

behar diogu gure buruari. Zer gara eta zer gura dugu?

Jendartea kontzientziatzea eta aktibatzea da gakoa. Durangon bada euskalgintzan diharduen hamaika elkarte, elkarlanean aritu behar dugu, indarrak batu. Euskarak eman

dituen aurrerapausoak herri-gintzari esker izan dira.

Gainera, harremanak lantzea ezinbestekoa da; pertsonengana hurbiltzea, atak irekitzea, garrantzitsu direla sentiaraztea...

Barbarotik noraino heldu gaitzkeela uste duzu?

Ilargiraino. Eskailera helduko diguten lagunak baditugu aldamenean.

Azken galdera hau libre. Bi lerro gai librean.

Berrian Idurre Eskisabeli irakurritako bat; "Pertsonala politikoa dela ere euskarara ekar genezake."

Zorte on Barbaroko abenturan, Itsaso!



Bigarren urtez ospatu dugu bertso-eskolen saioa

Durangaldeko bertso eskolekin bertso-merienda ospatu genuen otsailaren 20an, Barbaroko txokoan. Durangaldeko bertso-eskoletan aritzen diren ume eta gazteei bertso-plaza bat eskaintzeko asmoz antolatu dugu ekimena bigarren urtez. Bertso jarriak abestu zituzten batzuek, eta ofiziotan, puntuka, gaia emanda zein gai jartzen aritu ziren bertaratutako 25 gazteak.

Txaber Altube Sarrionandiak bertso batean eman digu gertatutakoaren berri:

*Gaua erortzear zela txokoko berotasuna,
Gora gure osasuna!
Txetos, krispis eta nutella dena behar den bezela.
Tripak goraino beteta, bertotan hiru-lau buelta bakoitza ahal zuen finen.
Barbarotik irten ginen donutsez ondo aseta.*

Euskara sarean

Ziur Berbaroko webgunean kuxkuxean ibiltzen zarela, Twitterreko txioak irakurtzen dituzula eta Facebooken baduzula gure berri. Dena den, Berbaroko kideek administrazioaren atarrietako zenbait atal kudeatzeko ardurak ere badiutuzte, eta horiek ezagutarazi nahi dizkizugu oraingoa. Euskara zerbitzuetako webguneak dira, hau da, Durangoko Udalekoa eta Durangaldeko Amankomunazgokoa. Besteak beste, euskarazko agenda, albisteak, diru-laguntzak eta erakunde horietako euskara sailetan egiten diren proiektuak ezagutu ahal izango dituzu.

Durangoko Udaleko euskara zerbitzua:

www.durango-euskaraz.net

Hainbat baliabide eskaintzen ditu orrialde honek, baina horietatik hiru iruditzen zaizkigu nabarmentzekoak.

Batetik, jakizu euskara zerbitzuak doako itzulpenak egiten dizkiela herriko elkarte, merkataritza, ostalari eta enpresei. Kartelen bat edo testu laburren bat euskaratu nahi izanez gero, badakizu nora jo!

Bestetik, hizkuntza-eskubi-deak bermatzeko txokoa ere eskaintzen du. Euskaraz egite-

ko eskubidea urratu da Durangon? Bada, webgune honetatik helarazi diezaiokizu udalari zure kexa, forma erraz eta arin batean. Egin klik "Ez gaude konforme" laukitxoan eta formularioa bete besterik ez duzu.

Berbarok ekarpena egiten du Durangoko Udaleko eta Amankomunazgoko webguneetan

Azkenik, **gamintza** udal langileen blogaren berri eman gura dizugu. Eman begiratu bat euskara planean egiten diren ekintzak ikusteko!

Durangaldeko Amankomunazgoko euskara zerbitzua:
www.durangaldeaeuskaraz.eu

Zenbat bider ikusi duzu ekintza interesgarri bat iragartzen duen kartela, data begiratu eta konturatu zara pasatuta dagoela? Edo alboko herrian



antzerki bat eman dute eta zuk jakin ez? Beste gauza batzen artean, webgune honetan euskarazko agendaren berri izango duzu, uste baino ekintza gehiago antolatzen dira-eta Durangaldean euskaraz. Antzezlanak, kontzertuak, hitzaldiak, ipuin-kontalariak, filmak... astero dago eskaintza aberatsa.

Bestalde, Beharsarea ataria ere kudeatzen da Amankomunazgoan, euskarazko lana bideratzeko. Gehienbat zaintzai-

leak eta eskola partikularrak emateko irakasleak eskaintzen/eskatzen dira, baina merkataritza, ostalaritza, industria eta bestelakoak ere iragar daitezke. Beraz, lana euskaraz egiteko jendea behar baduzu, edota euskalduna bazara eta lana bilatu gura baduzu, bide erraza eta zuzena duzu Interneten: www.beharsarea.net

Onena zuk zeuk arakatea apur bat gehiago. Hartu tartertxo bat Interneten saltsa-maltsan ibiltzeko!

Udaberrian ere, euskaraz aritzeko aukera

Udaberria heltzear dugu. Laster hasiko dira loreak loratzen, zerua argitzen, eguzkia sarria-

go agertzen, egunak luzatzen... Gainera, umeei eta gazteek eskolan oportxo batzuk hartuko

dituzte, eta inguruak alaituko dituzte, beraien irri, jolas, kantu eta algarak nonahi entzuten



hasiko gara-eta. Zein polita den udaberria! Gora bihotzak!

Urte osoan zehar legez, sasoi honetarako ere, aisialdia euskaraz gozatzeko aukera ezin hobea dakar Berbaro elkarteak. Izan ere, 3 eta 10 urte bitartekoentzako egonaldiak antolatu ditugu martxoaren 30, 31, apirilaren 1, 7, 8, 9 eta 10erako. Egun horietan aukera paregabea izango dute umeei eta gazteek lagun berriak egiteko nahiz askotariko ekintza dibertigarriez gozatzeko, besteak beste, eskulanak, esperimentuak, sukaldaritza saioak, herriko txoko ezberdinetara irteerak, jolasak, antzerkiak, dantzak, eta beste hainbeste!

Ziur kalean kantuan, jolasean eta dantzan entzungo eta ikusi dituzuela!

Udaberrian ere, gozatu olgetan euskaraz berbetan!

Abenturarako prest? Udalekuetan, horretarako hamaika aukera

Eguzkiak agerraldia egin, eta lehenengo eguzki izpiei begira, hasi gara jada udako oporretan pentsatzen... Eguraldi ona, praka laburrak, ur-jolasak eta bainu freskagarriak, betiko lagunekin eta egindako lagun berriekin abentura berri batean murgiltzeko desiratzen! Baga-biltza udalekuekin amesten!

Hamabostaldi horietan, egunerokotasunetik at, beste errealitate batean murgiltzen gara, beste mundu batean biziko bagina bezala, erloju, telebista eta mugikorrik gabe. Jendarteak egunerokotasunean egiten uzten ez dizkigun gauzak egiteko espazioa eskaintzen digute udalekuek, lupetzetan

zikindu, errekan bainu freskoa hartu, nahasketa higuigarriak burutik behera bota, edozein moztarro jantzi, sentimendu eta emozioak adierazi...

Urteak daramatza Berbarok udalekuen antolaketa, eta aurtengoan ere, eskaintza oparoa dakar elkarteak.

Durango bertan, herriari bizitasuna emango dien 3-10 urte bitarteko umeak Olgetanekin batera 5 astez ibiliko dira Olgetan Udaleku irekietan. Bost aste horiek denboraren ingurukoak izango dira, hasi kobazulotik eta etorkizunera arte.

Bi udaleku finko antolatu dira; 2005-2006 urteetan jaiotakoek Mendigorrian pasako dute udaldia, Nafarroan, uztailearen 5etik 16ra; 2003-2004 urteetan jaiotako gazteak, berriz, Ozean, Araban, batuko dira uztailearen 1etik 12ra.

DBH1 eta DBH2ko gazteek

udaleku ibiltarian parte hartuko dute, ekainaren 27tik uztailearen 8ra. Gipuzkoako kostaldean ibiliko dira oinez, Deban hasi eta Orioraino, Mutriku, Zumaia, Getaria eta Zarautzik pasata.

Uztailearen 10etik 24ra, 14-16 urte bitarteko gazteek Zumaian hasiko dute ibilbidea, iaz amaitutako toki berean. Bertatik flyscharen ibilbidea egin eta Bizkaiko kostaraino joango dira, Lea-Artibai gurutzatu eta Mundakaraino.

Haur eta gazteen gogo eta indarrak, begiraleen zoramenak eta sukaldarien gatz eta piperrak izango dira udalekuen osagai nagusiak. Horrela, erraza izango da lapiko goxo-goxoa prestatzea. Euskal Herriko txoko ezberdinak ezagutu eta horien xarmaz bustiko gara, naturaz gozatu eta berau errespetatuz, sortuko diren harremanez gozatuko dugu, beti euskaraz eta parekidetasunean.

Abenturarako prest? Izen-ematea zabalik dago; beraz, anima zaitez eta anima itzazu ingurukoak udaldi honetan hamaika abentura bizitzera!

udalekuak 2015 udan olgetan

UDALEKU FINKOAK

- Ozeata**
Uztailek 1etik 12ra
LH5 eta LH6koak
280€
- Mendigorria**
Uztailek 5etik 16ra
LH3 eta LH4koak
280€
- UDALEKU IBILTARIAN**
- Deba-Orio**
Ekainaren 27tik
uztailearen 8ra
DBH1 eta DBH2koak
280€
- Zumaia-Mundaka**
Uztailearen 10etik 24ra
DBH3 eta DBH4koak
290€

1. aldea: BAGA
(Ekainak 22-26)
Su baten bueltan dantzan ari garenean bat gara.

2. aldea: BIGA
(Ekainak 29 - uztailek 3)
Eki eta ilargi.
Egunaren bi aurpegi gara.

3. aldea: NIGA
(Uztailek 6 - 10)
Hiru belaualdiren ondorengo irribarrea gara.

4. aldea: LAGA
(Uztailek 13 - 17)
Euskal Herrian lau katu baino gehiago gara.

5. aldea: BOGA
(Uztailek 20 - 24)
Etorkizunaren jabe diren eskuko bost atzamarrak gara.

*Ordutegia: 9:00etatik 13:30etara

GOZATU OLGETAN EUSKARAZ BERBETAN

Izena emateko epea, martxoaren 9tik apirilaren 30era
Berbaro Elkarteak; Pinondo plaza 1, 1. solairua /
946 202 540 www.berbaro.eus / aisialdia@berbaro.eus
(laurretik plazak betetzen badira, izen ematea itxi egingo da)

HOBARIAK:
%10eko hobaria Berbaroko bazkideei
%5eko hobaria 2 neba arreba badira
%10eko hobaria 3 neba arreba badira

Arrosa eta arantza

Berbarotar askori **Arrosa eta arantza** atala ezaguna egingo zai-zue, urteetan Berbarotarra buletinean errotuta egon den atala izan da-eta.

Euskararen aldeko ahalegina zoriontzeko eta euskararekiko

kontzientzia eza salatuzko sortu zen bere egunean **Arrosa eta arantza**. Vintage-a da, beraz, 61. alean berreskuratu dugun atala. Ordutik hona, urte batzuk igaro dira, eta oraindik badago zer salatu eta zer goraiatu.

Bide batez, ekarpenak egitera gonbidatzen zaituztegu. Zuek ere atal honetako parte izan zaitzekete.

Arrosa

Plateruenean, Durangoko kultur egitasmo sozialean, sinetsi duzuenei. Babesa, laguntza eta proiektuen parte zaretenoi.



Arantza

Urtarril, otsail, martxo, apiril, eta urte osoan, Durangoko Azokak irauten duen bitartean dagoen euskal giroaren eta aroaren falta igarri dugu.

Non daude sasoi horretan tabernetan egoten diren euskarazko menuak? Erakuslehoetako euskarazko kartelak? Euskal musika?...

